


ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

163n. Zenbakia Orrilla
1992



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE**



**SAN ANTON ELEIZEA: LURREAN OIÑARRIA, ZERURA BEGIRA.
BILBAO'KO EUSKALDUNEN BASES-LEKUA
EUSKERAZALEEN OSPAKIZUNERAKO LEKUA**

(Ekainillaren 20'an, 12¹/₂'etan)

BILBAO ATZERRITARREN BIZITOKIA

Mundu zahalean erri batzuk errez biurtzen dira ospetsu, edo kai eder bat daukelako edo ardao onagaitik edo Ederti-Etxe egokiakaitik edo jakintza zahala daukelako...

Olako errietan edo urietan bizitokiak edo ostatu aundi ta ederrak bear izaten dira, erbestetik etorten diranak non jan eta non lo egin izan dagien.

Gure Bilbao onetan, batez be orain Erriarteko Azokea dala-ta, gero museo barria, ostatuak eta hizitokiak ez dira naikoa, ez daukaguz bear diran beste jatetxe etorriai txera ona egiteko.

Azokearen eratzailleak Europa guztian egiten dana egiteko ustea dauke: Gelak eta etxe-maillak alogorean artu. Orretarako eskintza lez itun-gai hat eskiñi dautse etxeak utsik eta alogorean emon barik daukezenai eta orain onein eskintza itxaroten dagoz eta eskariak zelakok diran, arduradunen erantzuna alakoa izango da.

Ander Beldarrain Zuzendari-Ordeak, urte birako tresna eta langaien Erriarteko Azoka iragarri dauanean, beste au be jakin-erazoten dau: Bizkai'ko Uriburuan diran ostatuak, baita inguruko urietakoak, ez dirala naikoa ikustaldiak egitera datozenentzat. Bilbao, Gasteiz eta Donosti'koak ezin dabe geiago artu eta orregaitik. ez dago beste biderik Burgos, Laredo ta Logroño'ra hialtzea baiño.

Jakiña da, geienai ez jakela izaten atsegin orrelako bide luzeak egunero egitea. Gaiñera urrin dagozan ostatu-
etxeak artzen dabez azokara egiten diran ikustaldien onurak.

ETXE-MAILLAK

Laterriarteko Azokearen Eratzailleak alegin guztiak egin ditu, adibidez, eskintza on hat egiteko: Ikasteko sasoia ez danean, ikastetxeak, bizilekuak eta beste urtenbide batzuk eskintzen. Danak hearco dira.

ENTZUN

Zuk nai dozu EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren 25n. urtean maite dozun erakunde oneri oparitzu hat egitea?

Geuk esaten dautsugu zein dan oparirik ederrena: Bazkide barri bat eta batera ZER aldizkari onen arpidedun izango dana aurkitu egizu. Bat haiño geiago al ba'dozu obeto.

Ez da ori ain gauza gaitxa.

Egin zuk be zerhait EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren jai aundi au ospatzeko.

Opariagaitik, aurretiaz, gure eskerrik beroena agertzen dautsugu.

EUSKERAZALEAK

ITXAS-ONTZIAK

Beste asmo bat dago: Itxas-ontziak artu orretarako, 300 gelatxu daukezan itxas-ontziak. Olako ontziak Bilbao'ra ekarri hearco litzakez, baiña Elorrieta'tik aurre-ra olako ontziak ezin ekarri.

Edozelan be, Bilbao'n dagozan ostatuak, esan dogun lez, ez dira naikoa eskariak erantzuteko, era egokian erantzuteko beintzat.

Emen ez dago oiturarik, baiña bai beste laterri batzutan, Alemania'n esaterako. Oraingo etxeak eta hizilekuak utsik daukezanai eskintza egiten jake. Asko dira Bilbao'n bizilekuak dauken Bilbao'tar eta euskaldunak. Olakoak alogorean emoteko gogorik ba'leukie, dim apur bat irahazteko ametsa egin leikee.

Eta zeintzuk dira hizi-leku orreik izan hear dabezan haldintzak?

Ez dint asko eta ez gaitzak he: Bilbao-banruan, obeto erdian, izan daitezela, ez da hearrezkoa ondo apainduak izatea, naikoa da gela bat eta bustialdia egiteko lekua izatea bakoitxarentzat. Ez da hearrezkoa uguztegi an gelean barman egotea.

Erbestik datozenak ondo artzeak garrantzi aundia dauka, aide askotatik begiratuta.

Orregaitik, kalean naiz etxean eurak ondo zaintzen alegindu bear gara, geu he erhestera joaten garanean ondo begiratuak izaten zaleak gara-ta. Zertan esan he ez, giza legeak berak eskatzen dauan gauzea data ori.

Euskaldunak lurralde askotan ibilliak gara eta heti izan gara ondo artuak, geuk he alegiña egin hear dogu antzeko erantzuna emoten, hatez he orain Europa-bidean aurkitzen garan ezkerro.

LETONA' k

OSPAKIZUNA GERTATZEN

Ogei ta host urte dira EUSKERAZALEAK ALKARTEA sortu zala eta urte onetan ospakizun berezia egitea erabagi dau Alkarteak.

Ozei ta host urte kondaira labur hat dira Euskalerrriaren hizitzan eta epe luze hat gure alkartearen aurrera-bidean.

Gauza egokia dala uste dogu ha, ospakizun au egitea, lenengo egindako lana gogoratu ta aztertzeke eta, bigarren, egiteko daukaguna gertatzeko.

Gaur he hizi dira oraindiño Alkarte onen sortzaille izan ziran batzuk, beste hatzuk joan jakuz, baiña gizalegeak eskatzen dauan gauzea da jai au egitea.

BILBAO EUSKALDUNIJU

Ori izan zan sortzailleen amets hat, amets utsa edo utopia. Eurak ondo ekien Bilbao dana euskalduntzea eziñezko gauzea zala, baiña orrantza joateko bideak artu ebezan: Euskera irakasteko liburuak, ikastaldiak, itzaldiak, antzerkiak, eres-mintz edo diskoak eta ahar.

Eta olako ametsakaz, beti jazoten dan Iez, ez zan dana lortu, baiña bai aletin aundi bat egin, eta auxe da balio dauana. Egingo dan astean gogoratuko dira lan oneik eta lorpen oneik. Or agertuko da ez dala lan urria ta ezereza egin dana.

EUSKERA ERABILLI TA INI)ARTU

Euskerarik Bilbao'n iñon be entzuten ez zan aldi aretan, euskera egiteko lotsea ta bildurra egozan aldi aretan, artu eben elburua ausarta izan zan: euskera erabilli.

Orduan Iotsa zan jentea euskeraz egiten, euskerak izen txarra eukalako, ez-jakiñen eta atzeratuen berbeta Iez artzen zalako.

Orduan bildur zan jentea euskeraz egiten, euskera egitea-gaitik zigorrak ezarten ziralako.

Eta euskerarik erabilten ez zan aldi aretan, EUSKERAZALEAK elhuru tez euskera erabiltea artu eban. Gaur be ha-dago onetan naikoa zeregin. Oraindiño askoz geiago entzun bear da Bilbao'n euskera.

LENGOAK ETA BARRIAK

Gaur EUSKERAZALEAK alkartean lan egiten dabena ez dira, guztiak ez beintzat, sortzaille areek: Batzuk joan dira, beste batzuk emen jarraitzen dabe, baiña langille bairiak sartu dira alkarte onetara, gaur be sartzen dira.

Gaur, gaiñera, arazo barri bat daukagu, orduan ez egoana, Bizkai'ko euskera baztertuta eta zapalduta ikusten dogula eta ado ontan ba-daukagu zer egin. Geurea geuk zaintzen ez ba'dogu iñork ez dau zainduko-ta.

Ospakizunean, kondairan izan diran gizonik ezagunenai zorjaken omena eskiñiko jake.

AURRERA HEGIRA

Sortzailleen gogoia beteten data, arazo barriai erantzuna emoten jakela, gaurko Euskerazaleak Batzordekoak aurrera jarraituko dabe eta hazkide diran guztien laguntzaz adoretuta ikusten dabe curet) burua.

Gazte hatzuk be urreratu jakuz lan onetan laguntzaille izateko. Ondo dakigu gaur gazteak olako arazoetarako asti gitxi izaten dabela, baiña asko poztu gara batzuk urreratu jakuzanean.

Ez da zertan esan be, gazte geiago bear dogula eta dei egiten dautsegula.

EUSKERAZALEAK - 25 URTE EUSKAL-ASTEA

Non: Eskolapioetan.

Noz: Ekainillaren 1 S'etik 19'ra. Arratsaldeko 8'retan.

Gaiak: Aurkezpena: Zubiri'tar Iñaki'k.

15. Astelena: Euskerazaleak alkarteko langille ospetsuak. (Etxenagusia'tar Karmelok)

16. Asteartea: Euskera Bilbao'n (Berrojalbiz'tar Julita'k)

17. Eguastena: Alkartearen argitalpenak (Olazar'tar Martin'ek)

18. E. guena: Alkartearen egutegia (Zubikara'tar Augustin'ek)

19. Barikua: Alkartearen ekintzak (Zubiri'tar Iñaki'k)

OSPAKIZUNA

20'an. Larunbata: 12'/2'etan mezea San Anton'en

14'etan Hazkaria, iragarriko dan jatetxe baten (Dei-txartela eskatu bear da)

SANTA GADEA, LARRATE TA ORDUN~ A

Orduñan jaio nazan ezkeroko gogo-enez irakurri dot Aita Santiren artikuloa, irailleko zenbakian agertutakoa. Nire jaioterriaren ondoan dagozan lurak ezaguten dodaz; baita bere euren edestiaren puntu batzuk.

Bilbao'tik-Pankorbo'rako bizabaletik sarkalderantz Losa, Gohea ta Tobalina ibarrak dagoz. Orduña'tik urte-naz, mendatea igo bat-10 len, Araba'n sartuten da. Mendateko gallurra Burgos da. Zazpi kilometro aruntzago Osmá (antxiñañ Uxama) dago; Araba'ri dagokio. Orduña'ko mendate ta Osmáren artean Berberana. Berberana Losa ibarrari dagokio, Burgos da.

Osmá'tik Larrate'raño ogetairu hat kilometro dira. Bizabala, naiz ta Bizkaia egindakoa berreun urte dirala, Araba'ko lurretatik zear doa. Larrate'n Burgosko lurretan sartuten gara.

Lurren batasuna bi prohinzitan zatiturik dago: Burgos eta Araha. Orduña, Bizkaitar uria, ez dogu aipatuten, mendate-pean dago ta. Antxiña ez egoan onelako zatike-tarik.

Lur oneek IX eta X gizaldietan euskaldunak ziran. Lekuko izen batzuk aitortuten dabe: Murita (len Murieta) Astulez ("aitz" edo) Berberana (aldi areetan Berheja) Zaballa, Hozalla ta abar.

Espejo'tik sarkalderantz bidea artuten ha'dogu. Balpuestan (Burgos) sartuko gara. Gizaldi areetan Elizbarrutiko uriburua zan. Moroak ia España osoa arrapatu ebenean, Aukako Elizaulkia Balpuestara eroan ehen.

Gaztela zaarra, oraingo Burgos probintziako iparraldeko lurak IX gizaldian jendeztuak ziran. Urbel'go Perez Prai Justok, edesti-idazle jakintsua, beneditarra, onelan edestuten deusku: "Los inmigrantes proceden de diversas regiones: unos hajan de Lizbana, otros del corazon de la montaña, otros de la Autrigonia o de las Vascongadas. La parte oriental (au da. aipatuten doguzan eta egoaldeagoan dagozan lurak) caia especialmente bajo la influencia de los vascos". Beste leku batean dirausku: "Valpuesta fue un foco de irradiacion vasca". Beraz, Aita Santi'k here txangoan igaro ebezan lurak euskaldunak izan ziran.

Birritan aipatu dot LARRATE. Zer da Larrate? Larrate, Puentelarra da. Ez dot leku-izen on asmatu beste batzuk Zubilarra, mapa ofizialetan ipinteko, asmatu daben lez. Ez dogu asmatu bear. Prai Justo berak diñosku: "Vemos a Rodrigo actuando en toda la Castilla primitiva, desde Amaya hasta Larrate o Puentelarra".

Nondik atara ehen beneditar pralleak LARRATE on?. Bere burutik ez, jakiñal. Edozein antxiñako idatznarrutan izan bear da berbea.

Aldi aretan Zid'en Santa Gadea uria Terminus eritxon. Geroago erritarrak aldatu ehen izena ta gaur daukona artu

eben. Zergaitik?. Izen barri au belarrirako polia zalako. Onelan ziraustan Prai Justok 1973ko epaillean berakin neukan berbaketa laburrean.

Aita Santik diñoskun gizaldietan (XIV, XV'an) Santa Gadeak garrantzi aundia eukan. Merkatari uria zan. An bertan judutegi edo aljama egoan. Ortik sortuko ete zan santagadearrak bustana eukela guzurrezko ipuiña.

Nire aita zanak, ango eleizako banko zar batzuean zuoloak, a bustana sartuteko, egozala, esaten eustan txantxetan.

Gaztelako arilbidea Santa Gadea'tik igaroten zan. Gero Orduña'tik, Ugao-Miraballes'tik Bilhao'ko porturaño. Emetik urez Flandes'era.

Ugao-Dorre ondoan eraiki zan Miraballes uri barria. Bilbao'ra joaten ziran merkatarienzat atzedenerako.

Bilbao'rako erregebidea Orduña'ko mendatetik igaro zan. Gaur mendatehidea dagon leku heretik. Errege hidea burdirako ez zan gauza. Orregaitik zamarien bizkarretan eroaten ehezan zamak.

Mendiko egaletik, orain Andra Mariren santutegia dagonetik igaroten zan. Andik "la Muera" igerlekuak dagozanera joan ',an. Joan zan eta doa, ha bide onek oraindiño irauten dau ta "camino real" izenagaz ezagututen dogu.

Bide au jarrai hear ehen Gaztelako erregeak Bizkaian sartzeko. Beste. Aita Santi'k here artikuluan aipatuten dauena, Txarlazorako hidea, geroago zahaldu zan; XVII gizaldian. Orduña'ko uriak iriki ta andik igaroteagaitik zerga hat jaso eban. Burditarako egokia zan. Baña taster txikia gelditu zan.

Orregaitik Jaurerriak bide harria egitea erahagi eban. XVIII gizaldiaren amaieran ogetamar oñeko bizabala Bilbao'tik Pankorboraña. Gaztelako Kontseillu baimenaz, Bizkaiko Jaurerriak bere lepotik egin eban. Bide harria, Pankorbo'n. Madriletik Prantziarako bizabatakin, batu zan.

Bide au larogei kilometroko luzea da. Bizkai'ko lurretan ogetabost edo dagoz. Besteak Araba'n eta Burgos'en. Orduko bizkaitarark hide au egiteko aña adoretuak ziran. Bilbao'ko porturako bearrezkoa zan eta. Gaur here, Bilbao'ko portuak burdinbide barria bear dau. Baña gure politikariak eztaibadetan dabiliz ia Madrigo ala Gazteizkoak egin bear ete daben. Bai, denborak aldatu dira!

GIZONA, LEEN-GAIA

EUSKAI, GIZONA

Esku-artean daukot Barandiaran jaunaren idaztiñoa, "LEEN EUSKAL GIZONA". Baso, mendi, leize, arpe eta bazter basatietan bizi izan arren, bere burua eder egiten jakin daki. Eta bere jatorrizko bikaintasuna ego-kiro adierazten dau.

"Nun-nai, beraz, jainko izeneko zerbaite edo norbaite, eta "animismo" delakoari dagozkion sinismenak. Alai ere leenagoko aroetan susmatu dogun erlijioaren muiña zebillan or: giza galde bereziari dagokion erantzuerak, eta giza ezieraren esoiña, gizakiari eragiten dion orobiran gogorki oñarritua eta indartua, naiz eta eraskin ugariz erdoildua eta astundua egon".

. **

Ara emen, erne-miñ gure asaha zaarren bizikizunak. Eusko gizona hetan izan da Jainko-zale eta aundi-zale. Zein ederrak diran zaletasun oneik!

GAROA eleberria berba onekin asten da. "Ura zan gizona ura! Zazpi oiñ ta erdi luze, makal zugatzaren irudira zuzen, pagorik lodiena haizen zabal, arte gogorrena bezela trinko, eta gorosti antzera zimel".

Baña gorputzaren izakera onen gaiñetik Eusko gizonak baditu barru-barrutiko baliotasunak: adimen argia, biotz leiala, gogo bizia eta asmo sendoa. "Nora gogo, ara zankoa" esaten da gure artean. Eta Euskal gizonaren gogo ekintza aundienetara doanean, nork eten here asmo-bideak, eta gure erriaren aldeko eginkuzunak? Zelako zura alako ezpala.

Eusko Jaurlearitzak begiz jo dau gure gizona eta ara emen here jardunaldi bikaña. "Euskadi prest jarriko dogu. Euskal leen-gaia: gizona. Gurea bezelako jendea ez da edonun aurkitzen. Gizona da izan be gure lurra- ren emaitzik onena, sendo aritzen dalako, kementsua dalako, aalengitzeko eta arpegia emoteko dauan eragaitik, lanerako dauan gaitasunagaitik".

Zorioneko jokabidea. Lenengo maillan gizona, eta gero aberriaren etorkizuna. Egin-nai oneri danok arpegi emon bear dautsogu.

LENENGO, IZAN

Gizonaren arazorik beiñena eta goragarriena here burua da, here izatea, eta gero bere izakera eta egikerea.

Giza-izatearen leentasuna zaindu eta aldeztu bear genduke guztion artean, bera dalako beste egikera guztien sorburua. Giza-izateari bum belarri jokatu ezker, andik etorriko dira, iturburutik ur gardena lez, gure lurra- ren guritasuna, gure lantegien aurrerapena eta gure bizi-biderako ondasun guztiak.

Aintzakotzat artzeko dira gaurkoan gizonen aide egiten diran egiñalak. An eta emengo bururakizun eta erabakiak goiburu batera datoz: gizona, bere nortasuna, bere eskubideak eta gaitasunak. Iñoiz baño geiago astintzen dira gaur gizonari dagokiozan eskubide ta eginbearrak. Gizona jartzen da gauza guztien gaiñ, eta zer guztien erdi-gunean.

Nork ez dau on ondo ikusten? Baña ez da aski. Ortik ezer gutxi dator gizonaren onerako. Gizona bera jabetu bear da here huruaz, berak arakatu, landu eta jorratu hear dau here baratza, edertasunaren lorak artu nai ba'ditu. Eta here barruan josi bear dau bere jatortasuna. Gizonaren arazorik kostagarriena here izatearen aunditasuna da. Ekin, ba, su ta ke. "Egizu alegiña eta Jainkoa lagun izango duzu".

GERO, EKIN

Gaurko munduaren lasakeriak ez dautso gizonari laguntasun aundirik emoten. "Zenbat eta geiago ibilli gizonakin, gizatasun gitxiago izan dot" (Seneka). Inguru txarrean bizi gara. Pentsakera nasaiak eta oitura nabarmenak bultz eragiñik, or gabiltzaz, ez gitxi, udazkeneko orbela aizean bezela.

Eta, au txarrena, sarri askotan, gizona here huruaz aztuta ibilli ez ezik, here nortasunaren aurka ekiñalak egiten diardu. Eta gizonak gizontasuna baztertu daro- nean ez dago bururik ez oiñik, ezaren ondo ondokoa da.

Gizarte nabarmen ontan ona eta garbia, leiala ta zuzena izatea, gaiñ-gaiñeko miraria dozu. Eta Euskal- erriak, larrialdi ontan, munduan bateko gizonak bear ditu, giz-urenak, gizandiak. Ortarako makiña bat buru- ukatze hearco ditu mundu labanari aurrez-aurre egiteko. Ainbat eta ainbat erosotasun eta nasaikeri artean burua erne eta tente izateko, gogo berroz jokatu bearco dau.

Gizona: Ieen-gaia."Guztiok ondo biziko gara on- tzen danean gizona".

URIGUEN'TAR ZENON

FORUA / ERRI-ESKUBIDEAK (PUJANA'REN IDAZTITIK LABURPENA)

Forua Erri bateko usuarioak eta oiturak dira; idatzi aurretik ERRIAREN errailetan menderik mende sarturikoak eta gorde ta bete izan diranak.

Bizkai'ko Forua Bizkai'ko erriko usuario ta oitura zaarrak dira.

Usuario ta oitura areik geroko baten **legetan** ipiñi ebezan. Forua da oiturazko legea, edo lege idatzi bagea.

Geroago oitura oneik Gernika'ko Zugaitz-pean batzarre Nagusietan legetzat ezarri ta idatzi egin ebezan. Foruari be esan dakioko esangua "zabal" baten: Lege Zaarra.

Erri-eskubideok, legetzat ezarrita gero, idatzi baten doguz. Orixe da, Bizkai'ko Forua deritxan idaztia. Ondoren agintariak onartu, Bizkai'ko Jaunak he hai, Erregek berak be bai. Erria da ba **agintedun** eta agintari. Au da demokrazia edo erri-agintea.

NOIZTIKOA DOGU BERA?

Foru zaarra. Lege hilduma au Gernika'n aurkeztu zan 1452'ko Garagarrillaren 21'an.

Lau Erregek, ziñ egiñez, onartu eben:

- 1452 - IV Endrike'k
- 1473 - Isabel Erregeingaiak
- 1476 - Fernando "katolikuak"
- 1512 - Doha Joana'k

FORU BARRIA

Foru zaarraren lege batzuk alperreko egin ziran eta beste usuario ta oitura batzuk agertu errian. 1526'an gagoz. Batzorde bat izendatzen da; 12 gizonek osotzen dabe. Oneik azkenez beste biren gaiñean lan osoa ipintzen dabe ta, bi oneik, egun bitan lana burutu. Berez, egun baten esan lei, ta legeak 268 izan ziran. 1527'an Valladolid'en Carlos V Enperadoreak onartu eban eta irarteko baimena emon be bai. 1528'an Burgos'en irarri zan lenengoz Bizkaiko Foru Barrizatua. Onartu ebenak oneixek dira:

- 1575'an, II Felipe'k
- 1602'an, III Felipe'k
- 1621'an, IV Felipe'k
- 1667 ta 1681'an, II Carlos'ek
- 1702'an, V Felipe'k
- 1751'an, VI Fernando'k
- 1760'an, III Carlos'ek
- 1789'an, VII Fernando'k

FORU GALTZEA

1839'an, II Isabel'ek emon eban lege hat, Foruaren aurka.

1876'an, ostera, Canovas'ek beste lege bat emon ondoren, guztiz galdu zan.

Foru barrian ez dotoz Bizkai'ko usuario ta oitura guztiak, garrantzitsuenak baño.

LURRALDE LAUAK EDO "TIERRA LLANA"K EGIÑA.

Foru Barria Bizkaia'ren zati batez bakarrik osoturiko lege-bilduma da. Lurralde Lauak egiña. Au da menditsu izan arren, baserriak eta elizateak edo elizaldeak osoturikoa.

Bizkaia'n iru erri-erakunde izan dira.

Lenengoa: **Auzoa.** Antxiñako euskaldunak "auzoan" konpontzen zituen euren arazoak batzarren bidez. Geroago, Kristaualdiak eraginda, elizaren inguruan alkartzen ziran inguruetako auzoak. Batzarrak elizpean egiten ehezan. Orixe da **elizateak** edo "anteiglesia" gazteleraz.

Urrengo, XVI mendean-edo, Udalak agertzerakoan, Udaletxean egingo dira batzarrak.

Irugarren erri-erakundea **Erribilduak** edo **Villa'k** dira, elizate bateko lurraldean Erregek edo beste Jaun batek sortuak.

Lurralde lauko edo "tierra llana"n 58 elizatek artu ehen parte, Bizkai'ko errietako ordezkari lez.

Ez eben parterik artu, ez **Erribildu** edo "Villa"k, ez Durangaldeak, ezta Enkartaldeak he.

Orrela ez eben parterik artu Bilbao'k, Gernika'k, Bermeo'k. Lekeitio'k, etab... **Erribildu** edo "Villa"k zirakoko.

Lurralde laua edo "Tierra liana" sei merindaldetan egoan bananduta: Busturia, Uribe, Zornotza, Arratia eta Markina.

Foruaren izena emon dakioko Erregeak edo Jaunak Erribilduai edo "Villa'i ezarritako erri-erakundeari be. Auxe da Foruak daukan bigarren esangurea: ta geienetan Logroño'ko Forua ezarri eutseen.

BIZKAIKO FORUAREN EUSKERAZKO LEEN-ITZUI,-PENA

Emen era bitako lanak dagoz: Bata Foruaren euskeratze-lana Pujana Jaunak egiña; bestea Adierazte-lana Jose Estornes Lasa'rena. Biak garrantzi aundia dauke ta 1981'eane kaleratu ziran batera. Bertan be ba-etorren Gaztelarazko testua. Euskerazkoa bizkaieraz dator.

Argitaraldiak guztiz amaika izan dira. Foru barriari gagokiozala. Lenena, Burgos'en 1528'an. Azkena Bilbao'n 1981'an, euskeraz eta gazteleraz argitaratua.

BA-DIRA IRUZUR LARREGI

Orain gitxi dala GAZTEENTZAKO BIGARREN LITERATURA LEIAKETA Bizkaieraz agertu zan eta, oba ez! ikusteak asko poztu ninduan baña poztuz gañera, amorratu here egin ninduan edo obeto esaterako, kezkatu. Bai, onelako gauzak kezkatzen nabe.

Eta zergaitik ori? Eusko Jaurlaritzak eta Bizkai'ko Foru Aldundiak Bizkai'ko euskereagaitik eta bere irakas-kuntzagaitik ain gitxi edo ezer ez dabelako egiten eta arri-garria dalako Bizkai'ko gazteek Bizkaieraz ikasi ezin eta leiaketa onetan zelan parte artu. Zelako aukera emoten jako edozein gazteri parte artzeko?

Gipuzkoan egingo ba'litz eta Gipuzkoeraz antolatuko balebe, egoera bardiñean aurkituko lirake? Olan ba'da zelako kultura saila daukagu Eusko Jaurlaritzan?

Au ez da dana. Ondiño Bizkaieraz irakasten dan Ikastetxe eta ikastola batzuk badira eta euretariko batzuk Eleiz-barrutiko babespean dagoz. Eleiz-barrutiko ezilegetariko bat, Bizkaieraz irakastea da, ken gitxienez orrela zan, baña orain ez, nik Ortuella'ko baten ikusten dodanez ez da orrela.

Orain urte batzutatik ona, bigarren etapan batua sar-tzen asi ziran eta aurten, (eta au bai lotsagarria) eskola-

arrekoiei bere, batuaz irakasten deutsee. Aitzakiaz, 'U.B.I. rako kaltegarria dala diñoie irakasleek baña on ez da egia.

Gazteek amar edo amaika urte Bizkaiko gramatika ikasten ba'dabe, gero batuaz moldatzeko iru illebeta baño, ez dabez bear izango eta orrez gañera, danok ez dira U.B.I.'ra joango, ez eta Euskal ikaskuntza geiagorik egin. Zer bear dabe ba?

Euren Errialdean erabilaten dan euskerea ondo ezagu-tzea, orixe da gazte guztiok bear dabena.

Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak, Euskaltzaindiak eta beste erakundeek onetaz arduratu arte, noizean bein antolatzen dabezan Leiaketak, Daialektologia -biltzarrak eta euren laguntzapean egiten diran ekintzak, ez dira ziri bat baño izango.

Erriko euskeraren aldeko emaitz onuragarriak lortzeko lenengo, erein egin bear da eta ereintza batuaz bakarrik egiten edo ezartzen ba'da, ez dagoz Erriataz izeka egiten?

PALMI

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dau-tzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñita eta 1.200 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA. Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

EUSKERAZALEAK (25 URTE)

OSPAKIZUNA: BAGILLAREN 20'an

BERBALDIK: 15'etik 19'ra ESKOLAPIOETAN (BILBAO'n)

(EGIN IRRINTZI ETA AURRERA)

"COCA COLA"REN BIDETIK?

Oar bi, Coca-Cola idazlan onen sarrera lez:

Coca-Cola bazan ni ume nintzala ere, baiñan ez eban iñork erosten. Munduko negoziariok txarrenetakoa san.

Gaur, ordea, munduko onenetakoa da. Munduan bigarrana. Bat bakarrik dago here gaiñetik: "Jesey-Petroleum". Besteak, "General Motors", "Duglas, Aviation", "Ford", "Texako"... Coca-Colaren azpitik dagoz.

EMAKUMEAK

Gure emakumezkoek ez dabe euskerarik egiten. Ez bekit iñor, "nik beti euskeraz egiten dot" esanez etorri. Nere esku-muiñik maitetsuenak euskeraz egiten daun emakumezko orren-tzat. Ez naz berarekin ari. Beste guztiekin ari naz: euskeraz egiten ez dabenekin. Eta, oiek, gure emakumerik geienak dira. Euskera, izkera arlotea iduritzen yake. "Elegante" itza maize dabe gure emakumezkoek, eta orregaitik, sarri erabiliko dot emen itz ori. Gure emakuntzakoak, euskeraz itzegitea gauza "elegantea" ez dala, gauza zatarra data, usterik dagoz, zori txarrez.

ZER-IKUSIA

Baiñan, euskerak, Coca-Cola, gure emakumeek... alkarrekin zer ikusirik bai al dabe?

Bai. Euskera salbatu nai ba'dogu. Eta salhatu bear dogu, Jainkoaren legea bete nai ba'dogu beintzat. Elizaren dotriña ba da, "Pacem in Terris" entziklikak erakusten daskunez, euskera bezala egoera larrian arkitzen diran izkuntzen biziaren aurka egin daitekean guztia, era astunean, —"graviter"—, justizi edo zuzentasunaren aurka doan gauza dala.

EREDUA-

Eta, Jainkoaren lege ori betez, euskera salbatzeko Coca-Cola dugu maixu. Maixu bakarra. Euskarari hizia itzultzeko, naitanaiez Coca-Cola'k ibilli daun bidea beste biderik ez bait dogu.

Coca-Cola'k garaille ibilli daun bide on, euskerak milla aldiz errezagoko erabilill daike. Baiñan bide ori garaille ibiltzeko, aingeru zaintzaille gidari egoki bat bear dau.

Aingeru gidari ori, bai al dakizute zer dan? Zabalkunde edo propagandagintzarako enpresa oietako bat. Ez ordea edozein, dirua alper-alperrik gastatu ez dagigun. Onenetako bat baizik. Kosta ala kosta, enpresa oietan onenetako bat billatu bear dogu. Munduko enpresarik onena, aal izen ezkeru.

Coca-Cola, ezerezetik, munduko industriarik audienetakoa —"Jesey Petroleum"en atzetik munduan industriarik audienabiurtu daun zabalkundegintzarako erakunde orrek, **milla aldiz errezagoko** biurtuko leuke izkuntza osansuntsu bizia, ia illik dagoan gure euskera gaixoa.

MIRARIA?

"Milla aldiz errezagoko", esan dot, eta ez dot gezurrik esan. Izan ere, Coca-Cola salbatzeko, zabalkundegintzarako erakunde

orrek, gezurra esan bear izan eban. Coca-Cola ez bait da edari gozoa, berez oso zakarra baizik. Euskera salbatzeko ordea, ez leuke gezurrik esan bearko. Euskera berez bait da munduko izkuntzarik "eleganteena".

Coca-Cola salbatzeko, mirari bat, "milagro" bat, egin bear izan eban: zakarra dena goxoa dela **sinistarazi** jendeari. Euskera salbatzeko ez leuke orrelako miraririk egin bearko. Ez leuke, berez zakarra denik polita dala iñori sinistarazi hearrik izengo. Naikoa leuke, gure emakume euskaldun maitagarriek, gure euskera, munduko izkuntzarik ederrena, dela **ikustaraztea**. Ederrena... eta polittiena; apaiñena, dotoreena, txukunena, "eleganteena".

MUNDUKO JAKINTUNAK

Agoa berotu yatala euskeraren gorazarrea egiterakoan? Ez eizue orrelakorik uste. Nik esandako on guztia esateko, munduko jakintsuek ez bait leuke kezka aundiegirik izango. Gure emakume euskaldun laztan maitagarriek ordea aztu egin dabe ori. Edozein erdera, gaztelera adibidez edo frantzera, elegante-koak iduritzen yakez.

Ni ez nago erederu oien aurka. Oiek jakitea, oietako bat jakitea beintzat, bearrezkoa bait dogu gaur-egun. Baiñan ez dagigun aztu, "elegante" bezala, askoz "eleganteagoa" dala gure euskera, eta askoz "eleganteagoak" hiurtzen dauzala euskerak gure emakumezko maitagarrien ezpain ederrak; eta, españiar ezjainñen artetik kanpo, nortasun berezia ematen dautsela gure emakume dotoreei, mundu "elegante" jende "elegante" guztien aurrean.

Euskera galdu ezkeru, gure emakumeak beste edozein emakumezko bezalakoak dira. Ez dahe, hesteen aurrean dotoretasun berezirik.

Ai, ordea, euskeraz mintzatzeko gauza ha'dira! Miresgarri eta inbirigarri hiurtzen dira mundu zabal guztian kulturazko jende guztientzat.

GIZONEZKOAK

Ta gizonezkoak, ez'? Baita gizonezkoak ere, bail-la euskera salbatzeko, emakumezkoak bear doguz, amaren izkuntza ikasten bait dabe seme-alabek. Gizonezkoek itzezin daikee japonesa nai ba'dabe. Emakumezkoek euskera itzegiten ba'dabe, salbatu yaku euskera!

Gure emakumeak "elegantiared" maitaleak doguz. Baiñan munduan lortu daikeen elegantzirik audiena euskera dala, ez dabe ikusten! Ori errez ikusterezi leikioe zabalkundegintzarako erakinde batek. Baiñan... izen bedi ona, oso-oso ona, erakunde ori; onena al ba'da!, naiz ortarako Coca-Cola salbatu eban York Berri'ko enpresa ura ekarri bear!

Bestela, alperrik urtuko geunke dirua, eta okerragoa, milla aldiz okerragoa dana, Euskerari, salbatzeko gelditzen yakon bide bakarra ondatuko geunskio.

BIZIA EDERRA DA, ZAINDU EGIZU

Lui7-eko izadi guztia, edertasunez, zoragarria da. Mendiak, errekek, arkaitzak, gallurak, ezin esan beste eder-gallu ditu ta guztien erdi -erdian, jaun antzo, adimendun gizon eta andrak, sorturiko guztien zuzendari.

Eginkizun aundia lenengo arbasoak, biziaren sorreran, artu eben ardurea... menperatu egizue lurra. Ta agindu bikain ori, urrezko katei baten antzera, iñungo ta iñoizko urratzerik barik, guregana, oso osoan, eldu da. Odoletik datorren ondorena da, ta oroz goitik, jainkozko agindu baten itzalpean.

Gizona, here jakituriari eder eretxirik, arrotu egiten da ainbeste edertasunaren aurrean. Egiz, gizontasunik ba-da, giza semea poztu egin bear dau, ta adorez eskuak laneratu, ta orrek osotu bear ditu giza bum argi ta biotzaren adore bere-bizikoak.

Mendiak gora doaz artzain ata artzaiñorak ardiak zaintzera. Eguzkia urrez eriotan dago, zabaldia ameskor, aizea garbi, ta zerua urdin... Txomin eta Patxi eder-miñez zoraturik dagoz izadiaren aurrean. Txomiñek, pozarren, ler bearrez, Patxiri dirautso: Au dok zoramena...! Lurrean ba ete dok onegaz bardintzeko ingururik...?

Patxi'k izadiari begira, zugatzak erne-miñetan dakus ta mendi egalak bedarrez orlegi... ta ardiak an aurrerago, mauka mauka, pozez, bedarrari ekiñez... Mendiaren ederrez zoratuta, Txomini dirautso...

Munduan ez jagok onako tokirik. Egiz, biotzak ez jok, iñun, aurkitzen onango atsedetik, eta begia ezin asetu dok ederraren ederrez. Arbasoen eskua agiri dok, ondorengoei esaten, atxurru ta zaindu gure bizi-iturri diran mendi mamintsuak. Basetxe, erri ta urietan dagozen ol bitxizko kutxak, ortxe, izan juen euren sorrera abia. Ume, mutil ta neskatil ta andre ta gizon, noiz nai, joiezak, zankoak bizkorturik, aize osasuntsuaz bizia indartzera.

Mendiak danantzat dituk eder... ardi, auntz, aker, bei ta goi egalari diran txori bizkorrentzat. Berezko deia jaukek mendi gain aspertu eziñak.

Norkeriak aide batera itzi ta mendiak dana opaka -jaukek, goi urdiña zabaldia, aize garbia ta irudimenak sortu leikezan amets soraarrienak.

Ta mendiak baiño gorago agiri ditut izadia ta gizadia arritzen ditun arkaitzak lurraren ezkon-senar antzera. Izadiaren nagusi ditut ta gizadiaren amets. Giza- semeak, an, jabiltzak munduaren guna gozartu ta izadiaren gangorra, adiskidetasunez, menderatu nairik. Udako orduetan urrezko maindiraz jagozak, dizdiz, printzetan ta neguan edur txapel zuriaz zidar dizdizetan.

Ederra dario aitzarte zoragarriari ta aitz artetik aitz-arteetara bera, ur-jausiak datoz saltari giza begien amesgarri. Urak egin ditu olako bear ederrak ta aizeak ta eguzkiak apaindu.

Mendiak, arkaitzak ta urak, guztiak zelai ta soloetara begira dagoz irripar panpotsetan. Urak umeltzen ditu lurak eta eguzkiak arnas-barritu ta bizia sorterazi. Ta udabarrian soloa, zelaia ta lur bizkarra ibaiaren inguruan loraz jantzi dira. Ernen, dator biziaren itxaropena ta gizadiaren poza... Ederrez eta janariz lurra beteko da berbetan giza-diagaz bere gogo ona, ederra ta arnari barriak eskeiniagaz.

Bosteko eun emongo deutzudaz dirautso lurak gizonari. Neguan zaindu nagizu lar eta ota, nire etsaietatik. Alperkeriak ez zagizala nagitu ta zure lurraldeak, bertan bera, itzirik, ondatu. Arto, gari sagar, lur-sagar, porru, bear dozun guztia emongo deutzut ta zure biziari poz barriak ezarriko deutzodaz.

Gizonak, gogoz, entzun ta onartu eutson deia ama lurrari. Ta udabarrian agertu zan lanaren ondorena garitzan, artotzan, sagasti ta maztietan soiñeko orlegiz ta loraz jantzirik. Itxaropena on egiñaren ezitia da.

PAULIN

»»»

EUSKAL ETXEGINTZA

GURE ETXEA

Euskalduna, antxina baten, artzuloetan bizi izan zan, lastozko, zurezko ta arrizko etxeak jaso arteño. Oneik muiño-gain, lau, ibar ta bakartadeetan eregi zituan geienetan. Lenengo uri ta erriak, txikiak ziran: euskaldunaren egoitza, bizilekurik egoki ta beiñena baserria izan da. Bakotxak dau bere etxea, bitzta bateko naiz biko. Etxe dotoreak, biotzez maitatuak. Amerika aurkitzean eta ostein, euskaldunik naiko joan lurralde areitara, baiña biotzak beti, erri-miñez, berezko jaiotexera saka egiten.

Euskaldunak maite izan dau, ta maite izango, here aberria, aurretikoen lur-zatia. Sendia dogu aberriaren sorburu. Euskaldunak, naiz txapelez naiz kapelaz jantzi, baserria dau jatorri. Ezta, ba, mirestekoa barne sentidu oi dauan sorterriganako su joria. Eta beiñola Ulises, atzerri zear ibilli ostein, Itaka bere aberriko kea ikusi-miñez etxerantza ba'etorren, askoz be geiago, edo bardintsu, euskalduna be. Euskaldunak, izan be, maite dau askatasuna, bere buru-jabetasuna; famili barik ez legoke, baiña, askatasunik ez buru-jabetasunik.

Gaur daukaguzan baserri ta etxerik geienak, Pizkunde garaian ain zuzen be, pixkaka pixkaka jasoak dira. Gaur -egunean lengo erri ta uri txikiak azi ta nagusitzen diardugun lez, garai aretan mendi-ertz, erreka ondo, muna eguzkitsu, bazter ixil, troka aiñube naiz aitzuri arteetan jaso oi ebezan; beti be, jakiña, euren bei, ardi, auntz eta ostantzeko etxe-abereak zer jana eben lekuetan.

ZELAKO EGIKERAZ

Edergille danak bere eder-antzea agertu bear. Euskalduna, ez gara aspertuko esatez, antxiña txirulak, adarrak, makiñak egitean, naiz geroago gazteluak eta jauregiak, erri ta uri zabalagoak antolatzean, beti agertu izan yaku artista. Begira euskal-lur gaiñez, zenbat olako. Kastro'tik Baiona'ra, edo-ta Araba, Naparru, Baxenabarra ta Zuberoa'n zear. Erbestean ezta onakorik aurkitzen.

Egikera berezia dabe oroigailu ta eraiki guztiok; ez gero danetan estilo bat bera dalako, bakotxak zer-

tan edo artan ezbardintasunen bat daroalako baiño. Euskal egikera, estiloa dala esan bear naitaez; euskal kultura dago gaiñezka. Zoaze beste toki batera, ta ez dozue olakorik idoroko; zoaze, bai, esate baterako, beiñola euskaldun artzaiñak bizi izan zirala esan oi dan **Aran** ibarrera; oso politak dozuez ango etxeak, baiña ez daukie emengoan antzik. Gure arima zarra bizi da oraindik euskal sutaldean.

Begira gure etxe bat. Garai aretako geienak, Bizkaia'n, Gipuzkoa'n eta Lapurdi'n, au da, Kantauri aldekoak, arrizkoak dira orma-azurrak, zurbesoz gurutzatuta; teillatuak ura aide bietara doala, gaillur jagiz eta, iñoiz, aurrekaldean txapel ederrez jantzirik. Zegaz egiten ziran? Amabostgarren menderate basetxerik geienak zurezkoak ziran; baiña sarritan suak artzen zitualako, orduko agintariak, gai ohea, seguroagoa, arria adibidez, erabiltearren, eragilleai sariak emoten eutsiezan. Garabai'k bere "Oroipenetan" Bilbao erre zanekoa edesten dausku. Bilbao'n ordurarteko etseak, ia danak, surezkoak ei ziran, eta arrezkero ladrillu edo arlandu ederrez jasoten ei ebezan. Orduantxe asi ei ziran, gaiñera, kalera emoten eben etxe aurreetan leio urratuak eta leiarrak jarten.

Etxerik geienak, gaur dakusgunez, lau orma eukiezan, arrizkoak, etziran aundiak, ez goi ez sendo. Onein gaiñean jarten zan erakiñaren zati nagusia, gorantz doazan zutoiñak eta abar, eta zutoiñen artean beste aga meeago batzuk, zearkako eundura edo bilbea egiñaz: aga mataza aonetan tinkotzen ziran kanpotiko orma ta barruko zurbesoak.

Estilorik naiko erabili eben gure etxegille azkarrak garai artarako, aurrekalde, atari, arku, balkoi, leio, albo-egoitz eta abarretan; gaur be arrigarriak dira arein aga-lantze ta gurutzatzeak. Oin bi daukiez baserririk geienak; lenengoan sukaldea, eskaratza, logelaren bat eta etarte, atzean kortak izanik; bigarrenean, lau, bost-sei logela aurretik eta sabaia atzean, elbitza, garaunak, igaliak, lastoa ta olakoak eukiteko.

Basetxeok, naiz-ta Euskalerrri osoan bardiñak ez izan, danak dabe bateratzen ditun zerbait apartekoa. Gaiñerantzekoan, esan dogunez, ezbardin edo bestelakotasun izugarria daukagu euskal estilo barruan, amalau-amabost-amaseigarren mendeetan jasotarikoen artean batez be.

Etkez aaiñera, eleizaz ta torre-etxez, gazteluz ta jauregiz beterik daukagu Euskalerrria. Torre -etxe asko erdi-arokoak dira, uritik kanpora jasoak, gain-txo ta muiñoetan batez be: Muxika, Foru'ko Urdaibai, Oñati'ko Zumeltzegi, Irurita'koa, Elgeta'ko Jalotza ta abar; beste batzuk arresiz inguratuta ageri dira, Urtsua, Mendoza, Muñatones eta abar. Oneitatik asko, Aide Nagusien burrukak ziralata, eratxiak izan ziran, edo beintzat, naikoa moztuak. Enrike IV'garrernaren aginduz.

Guztiok zeazteak luze egingo gindukezan ezker, eleizak eta etxe-torreak aitatuko doguz bakar-bakarrik.

EI, EIZAK

Oso aberatsa da Euskalerrria monastegi ta eleize-tan, napar-lurralde batez be. Erdi-Arokoak doguz geienak, bertoko etxegille trebeak eregiak. Iruña, Lizarra, Olite, Tudela, Gares, Olazagutia, Obanos, Oliba, Orreaga, ez dozuez eredu eskasak.

Amaseigarren mendea be ez da urria, pizkunde aroa baita. Eder-gai klasikuak eta gotikuak erabilli ziran, bai etxegintzan eta bai eleizak jasotzean. Orduantxe asia dogu plateresku estiloa be. Orduko eredu billa asten ba'gara, or daukagu Oñati'ko San Migel eleizan Merkado gotzaiñaren illobia; or Gazteiz'ko ta Donosti'ko Santo Domingo komentua; or Bilbao'n Enkartazio eleizea, San Anton'eko ta Begoña'koaren aurrekaldeak; Eibar eta Itziar eleizetako altara batzuk. Ez dituzue eredu txarrak pizkinde garian, plateresko ta txurrigeresko giroan be.

Gizaldi artan eleiz-arkitektura saillean zelan genbiltzan jakin gura izan ezker, ez daukagu Bizkai'tik urten bearrik. Or Lekeitio; ango eleiza ederra, etxe-koak eta arrotzak goretzia, gaur daukaguna, amaseigarren mendearen asieran eregia da. Suak erre eban 1422'an itxas-ertzeko uri pertxenta, baiña orduko eleiza be. Zar-zarra zan au; Konpostela'ra joiazanak bertan egiten eben oiturazko egotaldia. 1488'an asi ziran barria egiten, eta 1508'an amaitu zan. Antxiñakoa egoan lekuan bertan jaso eben barria be, lur geiago artuaz. Gotik-egikerakoa dozue, barru ta kanpo eder-ederra. Erretaula batez be, ezin ohea, Juan Gartzia Krial'ek 1510'an amaitua.

Garai artakoak doguz, baita, beste askoren artean, Orduña'ko barriztua, Bilbao'ko San Nikolas 1576'an jaso, Elorrio'koa aurreratxoago egiña, Begoña'koa 1519'tik aurrera barriztatua, Zornotza'koa, 1566'an jasoten asi ta 1608'an bedeinkatua.

Durango'ko Andra Mari, ta abar. Gernika'ko auxe berau, Iturritza'k diñoskunez, 1418'an asi ta 1715'an amaitua: gizaldi osoko lana. Gauzak patxaraz egiteko, gure aurretikoak ez erabillen esturarik.

Euskalerrri osoan, baiña Bizkai onetan berariz, ermitaz josirik daukaguz bazter guztiak. Sei-zortzi errez idoro geinkez erri bakotxean. Ennita oneik be, asko beintzat, garai artakoak diranik ezin ukatu. Arte aldetik begiratuta, alan be, ez darakuskue eder-lits jakingarririk, ez ennita ez bertako irudiak.

TORRE-ETXEAK

Ugariak eta esku-ederrez jasoak ditugu, mugaz onunzkoak batez be, andikoiak ezer kendu barik; aibat basetxe, erri-etxe, jauregi, gaztelu ta torre-etxe euskaldun arkitektu erneak jasotakoak. Or Gipuzkoa'n Zarautz'eko Torre Luzea, Berastegi, Legazpi ta Oñati'koak; or Naparroa'n eta Baxenabarra'n Zoziaia, Irurita, Gallano, Xabier; or Araba'n Mendoza'n, Argomanitz'en. Apainketari so ezker, barriz, or Urola ondoan Lilil torretxea, ta Oñati'n Ikastetxe Nagusia, bertako seme Merkado gotzaiñak amaseigarren gizaldian eregitakoa.

Gaztelu ta torre-etxeetan ez gara azkenengo bizkaitarrok. Iru gaztelu daukaguz, gaur be ederrak: Muñatones, Butroi ta Arteaga. Torreak, oster, konta ezin-ala. Ibarra'k eta P. Madariaga'k iru ale aunditan zeaztu ta edesten dauskuez euron kondaira, armarri ta jatorriak; 146 olako aitatzen dauskuez, merinaldeetan bananduta.

España'ko erregeak, Naparroak here jabetasuna galdu ebanean angoak eta Enrike IV'garrenak beste iru probintzietakoak moztuteko agindu eban 1457'gnek apirillaren 21'an Santo Domingo de la Kaltzada'n emon eban aginduz; geroago Fernando Katolikuak be, Okaña'n izenpetu eban idazki baten bitartez, galazo egin eban gaztelu ta torre-etxeak jasotea. Arrezker, beraz, leen militar torreak ziranak, garaia ezker, etxe baketsu egokiak dira, leio ta atez aberatsak, ipuin zarrez be, bear bada, noiko ugariak.

AITA ONAINDIA

Larrea, 1977-2-2'an

MUNDUA ETA GIZAKIA JAINKOAREN LANA DA

Fisikako Nobel-saria irabazitako Anthony Hewish jakintsuak onela zion Donostia'an 1988'an (El Correo Español - III -10):

"Zero puntutik aruntzago? Gauza guztiak zergatik asi ziren galdetzean, fisikak ez du erantzunik. Zeintzilari batzuk, neuk ere bai, gorengo maillako adimen bat bearrezkoa dela uste dugu... Jainkoa oiñarrizko dela pentsatzera iritxi naiz... Zientzian ez dago ezer ere neure sinismen personalaren aurka dagoenik".

BIBLIAREN ZAZPI EGUNAK

Gauza asko eta eder daude mundu zabalean eta guztien sorrera eta asieran Jainkoa dagoela diote Bibliaren liburu santuak. Berak egin zituela guztiak zazpi egunetan. Onela:

- 1.- Zeruak eta Lurra egin zitun. (Zeruak utzi eta Lurrarekin asiko da).
- 2.- Argia (eguna), urak eta legorra.
- 3.- Legorreko mendietan, belarrak eta arbolak.
- 4.- Eguzkia eta Illargia agertu ziran (laiño arte-tik).
- 5.- Uretan arraiñak, aidean egaztiak eta mendie-tan, piztiak.
- 6.- Guztiak prestatu ondoren, egin zitun gizona eta emakumea, lurrez eta espirituz.
- 7.- Ez zuan ezer egin, gizonak zazpigarren egune-an atsedena artzen ikasi zezan.

Igandeetan lanari utzi eta deskansua artzen Moises'ek irakatsi zion bere Israel erriari. Orretarako Jainkoaren lan osoa sei egunetan banatu zuen eta zazpigarrenean Jainkoa deskansu egiten ipiñi zuen. Jainkoak ez du deskansu bearrik; baiña erriak larunbatetan ere jai egiten dute. Garai aretara-ko igandean jai egitea aurrerapen aundia izan zan, Bibliari eskerrak.

Biblia ez da zienzi-liburua, erlijio-liburua baizik. Gizaki eta Jainkoa'ren arteko ar-emanak ditu azter-

gai. Literatur motak desberdiñak daude Biblian: pedagoji-gaiak, kontaerak, olerkiak, erri-oiturak, parabolak, profeziak, otoitz-gaiak... Moises'ek eta beste idazleak ez zuten zientzia-libururik egin, baiña Lurraren sorrera berak esan bezelatsu gertatu zan. Berak azpimarratu nai izan zuena auxe da: Zerki guztiak, Uniberso osoa, baita gizakia ere Jainkoak egiña da; Gizakia lurra eta espiritua da eta here sor-tzaillearen esanetara egon bear du. Eta zazpi egune-tik bat, gutxienez, jai egin hear du. Jainkoak egiñiko guztia ona da berez baiña gizakiak okerra egin zuen asiera-asieratik.

Kredoa: Sinisten det Aita aalguztidun zeru-lurren egillea.

JAINKOAK GIZONARI DEI EGIN ZION: ABRAHAM

Gizakiak here kabuz, here jakinduriz eta bere indarrez, oso gaizki ezagutzen du Jainkoa. Jainko bezala gurtu ditu Izakien indarrak: Eguzkia, illargia, zeru urdiña, tximistak, aizea... eta sorginkeriak.

Gafiera gizakia Jainkoaren aurrean okerra eginda zegoen. Oker on zuzentzeko eta jainkoaren berri zuzenak emateko, Berak erri bat aukeratu zuen. Erri orretatik jaioko zan Jesus, Jainkoaren Semea eta gure Salbatzaillea. Eta erri orreri emango zion Biblia deritzan liburu-sorta.

Erri on sortzeko, Abraham zeritzan gizon bateri dei egin zion. Artzaia zan eta ibiltaria, here artalde-kin batetik bestera zebillena. Deia onelakoa zan: Irten zure erritik eta ingurutik eta beste lurralde bat emango dizut eta erri ugari baten aita egingo zaitut. Eta gero Jesus jaioko zan lurraldera, eraman zuen.

Lurralde artan zegoela Jainkoak Abraham'ekin Itzarmen bat (Testamentu edo Itun bat) egin zuen. Auxe: "Ni zuen Jainko izango naiz eta zuek nere erri". Eta Itzarmen on animalari baten odolakin siñatu zuten.

Abraham'ek seme bakar bat zuen, Isaak izenekoa, zaartzaroan sortua. Egun batez, onela esan zion: "Ar

zure seme Isaak eta nik esango dizudan mendian eskeiñiko didazu animalien ordeztu". Abraham txundituta gelditu zan, oso larriturik. Zaarra zan, beste semerik ez zeukan eta, nola sortuko zan bere zañetatik erri berezi ori?

Baña Jainkoa'ren esanetara makurtu zan eta eskeintzera zijoan une artan bertan, Jainkoa'k onela esan zion: "Geldi eta ez ikutu zure semerik. Nere naia bete dezulako eta neregan sinismena izan dezulako, begira izarretara, zure ondoren sortuko dan erria zeruko izar oiek baiño ugariagoa izango da..."

ABRAHAM'ek seme bat izan zuen: Isaak.

ISAAK'ek bi seme izan zituen: Esau eta Jakob.

Jakob'eri Jaunak izena aldatu zion ISRAEL deituaz. Aurrera Jacob eta Israel, biak dira Jakob'en izenak.

JAKOB (ISRAEL)ek amabi seme izan zituen eta alaba hat.

Amahi seme oiek izango dira Israel'go amabi leñuen sortzeilleak. Amabi tribuen sortzailleak. Amabi oien artean hat zan JUDA eta onen ondorengoak dira JUDUTARRAK eta amabi taldeen ondorengoak, guztiak dira (Judutarrak ere bai) ISRAEL-DARRAK.

Berri auek Bibliaren lenengo liburutik dakizkigu: Genesis liburutik. Itzarmen, Testamentu edo Itun zaarrek Biblia-liburuak 45 dira. Oien artean lenengo, esan degu GENESIS liburua.

MOISES BERE ERRIAREN ASKATZAILLE

Israeldarrek, Jakob'eren seme eta illoba, 72 lagun, Ejipto'ra jaitxi ziran. Gosen deritzan lurralde-
ra. Artalde eta ganaduentzat leku erosoak eta belar-
tsuak ziran Gosen'goak, Nilo ibaiaren inguruan. Toki artan errez ugaritu ziran, bai eurak eta bai euron artalde eta bestelako abereak...

Ejiptotarrek, nekazariak izanik, artzaien etsai ziran eta erri aren ugaritasuna ikustean, kezkatu-
rik, indarrez menpean artu zituzten urte luzeetan zear. Ladrillugintzan eta, gari-zulodun erriak eraikitzen, erabilli zituzten, nekez eta naigabez. Ori asko ez zala, Erregeak, Israeldarren seme jaioberriak erailt-
zeko agindua, zabaldu zuen Gosen'go lurraldean.

Aurra izanberria zuen andre batek, pikeaz kanpo-
tik igurtzitako saskitxo batean semetxoa kokatu, eta

Nilo ibaian ipiñi zuan, Ejipto'ko Erregearen alaba igari egiten zuen lekuan. Andre onek aurkitu zuenean, etxera eraman, eta erregekuma baten antzera ezi zuen. Moises izena jarri zion, "udetatik atera zuelako".

Berrogei urte zituela, israeldar bateri laguntza ematean, ejiptotarra erail zuen, eta aide egin bear izan zuen desterrura eta an eskondu zan artzai baten alabarekin.

Sinai mendian artzantzan zebillela, larrak ikusi zituen sutan eta erretzen ez ziranak. Ikustera gertaratu zanean, Jainkoa'k ots egin zion suartetik:

"Zoaz Ejiptora berriro eta nere Erria askatu".

Joan zan Ejipto'ra eta, gora-beera asko pasa ondoren, lortu zuen Israel erriaren askatasuna. Eta atera zituen Ejipto'tik Sinai'ko basamortura.

Askatasunerako bidea artu zuten gauari, Pazko-gaua deitu zioten. Arrezkero, gaur ere bai, Israeldarrek Pazko-jaiak ospatzen dute mundu osoan, askatasunerako bidea gogoratuz.

Kristauok ere ospatzen degu Pazko-eguna, gure askatzaille Jesus egun orretan illen artean piztu zala-
ko.

Moises'ek Jakob-Israel'en ondorengoak, erri oso ugaria, Ejipto'tik askatu eta, basamortuan zear, esklabu zana, erri aske baten antzera eratu zuen, erri batek bear dituen antolamentu guztiez. Berrogei urteen buruan, eldu ziran Jainkoa'k Abraham'i agindu zion Kanaan lurraldera: "Esnea eta ezitia darion errira".

JAINKOA BERE ERRI ISRAELEKIN ITUNA EGITEN

Moises'ek berak askatutako erria, basamortuan darama Sinai mendirarte. Mendi aretan artu zuen Jainkoak emandako agindua: Moises, askatu nere erria.

An daudela, berriro ere Jainkoa'ren deia: Etorri gora. Igo zan eta 40 egunez jainkoarekin egon zan mendian. Eta, bertan egin zuten, biok, Itun edo Elkargo bat: "Zuek izango zerate nere erri eta ni izango naiz zuen Jainko". Eta, erriaren buru Moises bera zanez, berak siñatu zuen Ituna, Elkargoa edo Testamentu Zaarra.

ELEIZA

Ituna aurrera eramateko, Amar Agindu eman zizkien (eutsoezan) Jaunak Moises'ek menditik ekarri zitunak. Elkargo edo Itun on siñatzeko aldara bat jaso zuen eta abereak erail zituzten aldara gainean eta odolakin Moises'ek aldara eta erria odol-zipristiñez buzti zituen.

Berrogei urteen zear, Moises'ek, Jainkoa'rekiko artu emanetarako bear ziran antolamentuak egin zitun, bai tresna eta bai liturgiak: Aldara, apaizen jantziak, ogiak eskeintzeko maia eta zazpi besoko kandelero edo argi-mutilla. Baita Elkargo-Kutxa ere Amar Mandamentuak gordetzeko, eta Billetarako Oial-etxe berezia, Jainko'aren bizi-lekua eta Berarekin alkartzeko tokia.

Amar Mandamentuak justizia edo zuzentasuna gordetzeko dira: gure eskubide guztien defentsarako. Amar Mandamentuak onela banatzen dira:

- 1RU Jainkoarentzat: 1.- Bera maitatu.
- 2.- Bere Izena ondo erabili.
- 3.- Bere Eguna, igandea, jai-egin.

BOST gizakientzat: 4.- Gurasoak maitatu.
5.- Bizia zaindu: Ez iñor il.
6.- Ezkontzarik ez naastu.
7.- Iñori, berea danik, ez ostu.
8.- Egia zaindu eta iñori gezurrik ez esan.
Beste BI: 9 eta 10.- Gure barruko gogo okerrak zuzendu.

Amar Mandamentuak BI auetan biltzen dira:

- 1.- Jainkoa danak baiño geiago maitatu.
- 2.- Lagunurkoa geure burua bezala maitatu.

Amar Mandamentuak betetzen diranean, guztiok gabiltza obeto.

PROFETAK, JAINKOAK SORTUTAKO PREDIKATZALLEAK DIRA

Moises'ek askatasun-lurrera eramán zuan here Erria, eremutik irtetean. Baiña, Erria ondo bizi zanean, Jainkoarekin eginda zeukan Ituna eta Elkargoa aztu zitzaion, eta jainko-txikien billa joan zen. Orduan Jaunak gizon eta emakume profetak aukeratzén zituen, eta here espíritu-indarra ematen zien, okerkeri oiek salatuta, Jainkoarengana Erria biurtzeko, barkamena Jainkoari eskatuz eta Errian Jaunarekiko itxaropena sortuz.

Artzai gazte bat, Dabid, aukeratzen du Jainkoak here Erriaren errege, eta erregetza on ez zutela here ondorengoek menderen mendetan sekulan galduko, agintzen dio... Agintza on Jesus'engan bete zan, bera bait da Dabid'en ondorengo eta betiko Jainko errege.

Dabid'en semearen ondoren, erreinu on bi zati egin zan: Israelgo erreinua iparraldean eta Judeakoa egoaldean. Israelgo erregeek ez zuten Jainkoarekin, eta Berarekin egindako Itunarekin, leial jokatu eta gezurrezko jainko-txikietara jo zuten. Jainkoa'k profetak bialdu zizkien (eutsoezan); baña, alperikakoak izan ziran Elias, Eliseo, Amos eta Oses profeten lanak...

Aizkenean, 721 urte Jesus jaio aurretik, Asiria'ko Erregeak burrukan menperatu eta israeldarrak preso eraman zitun Ninive'ra.

Andik 150 urteetara, Nabukodonosor erregeak beste orrenbeste egin zion Judea'ko erriari: menperatu eta Babilonia'ra preso eraman. Judeatarrek ere izan zituzten euren profeta predikatzalleak: Isaias, Jeremias, Ezakiel, beste Isaias, Zakarias...

Irurogei urte desterruan igaro ondoren, izan zuten berriro askatasuna Judea'ra biurtzeko. Nai izan zutenak Jerusalem'era etorri ziran Erria eta Eliza Nagusia berriz ere jasotzeko.

Profetek biotz-berritzea eskatzen zioten Jainkoa'ren Erriari, [tuna edo Elkargoa gordetzeko. Elkargo orren inguruan sortu ziran liburu bereziak eta Liburu Santu (Biblia) oietatik edaten zuten Jainkoa'rekiko jakinduria, eta, Salmoak abestuz, otoitz egin.

Itun edo Elkargo aren aizken profeta Joan Bataiatzaillea izan zan. Jesus'en etorrera prestatzeko sortu zuan Jaunak. Eta, alaxe egin zuan esanez:

"Orra or pekatua kentzen duen Jainkoaren Bildotsa".

MARIA NAZARET'EN

Bere agintzariak betetzeko, Jainkoak jende xee eta apalen artean aukeratzen zituen here profeta eta

igarleak. Mundoko okerkeriak zuzentzeko eta euren ordañak emateko, Mesias bat agindu zion Jainkoak here Erriari.

Maria, arotz baten emaztea, Nazaret erri apaleko alaba zan. Palestinak iru erri-alde zituen: Galilea ifar-aldean; Judea egoan eta Samaria bien erdian. Nazaret Galilea'ko errixka bat zan.

Maria'k Jainkoaren mezua artzen dun aingeru extraterrestre baten bidez. Onela diotza Gabirel'ek: - Nai al dezu Mesias'en ama izan'?'- Bai, nai det.

Orduan, Jainkoaren indarrak, Maitasun-Espirituaren bidez, Maria'ren sabelean, Mesias salbatzalea sortu zuen Nazaret'en.

Nazaret Galilean dago eta Belen, Mesias jaioko dan tokia, Judean eta hien biartean, 120 kilometro. Maria eta Jose here senarrak kilometro oiek egin zituzten aurra jaio aurretik. Belen'en ez zuten ostaturik aurkitu eta koha-zulo batean aukeratu zuten beurentzako bizi-lekua. An jaio zan Jesus, eta aurra askatxo batean ipiñi zuten.

Inguru artan artzaiak zeuden ardi-zain Jainkoaren mezularia, aingeru extraterrestrea, agertu zitzairen, onela esanez:

"Mesias jauna jaio zaizue Belen'en. Askatxo batean topako dezute, oialetan bildua".

Jesus, gure Salbatzalea, gure anaia da eta here Ama, guretzat ere ama da.

k*~,

Gabriel aingeruak Maria'rengana gerturatu zanean, onela agurtu zuen:

AGUR MARIA, GRAZIAZ BETEA, JAUNA DA ZUREKIN, BEDEINKATUA ZERA ZU ANDRE GUZTIEN ARTEAN.

Eta here lengusiña Isabel'ek onela amaitu zitun aingeruaren itzak:

BEDEINKATUA ZURE SABELLEKO FRUTUA.

Eta Elizak erantsi zion: JESUS.

Orra nola eratu zan AGUR MARIA otoitza.

JESUS'EK DAKAR JAINKOA'REN ERREINUA

Jainkoaren Erreinua Jesus'ek berak dakar mundura. Jainkoa'k Biblian itz egin digu, idazle eta pro-

feta-igarleen bidez; baña, here Semea mundura bialdu ondoren, Semea da igarle eta profeta, Semea da Jainkoa'ren Itza eta ao ortatik itz egin digu Jainkoa'k.

Jesus Belen'en jaio zan. Eguberritan ospatzen degun bezala; Nazaret'en azi zan Jose arotzaren etxean, eta, 30 urte bete zituenean, irten zuen etxetik Jainkoa'ren Erreinua predikatzerara eta erakustera.

Bere lenengo lana auxe izan zan: Jorda'n ibaian jendea bataiatzen zebillen Joan Bataiatzalea eta arengana Joan zen. Joan'en bataioa artu nai zuen eta, artu zuenean, Jainkoa'ren Espiritua agertu zan eta Jesus'engan kokatu. Orduan abots bat entzun zan zeruan: Auxe da nere Seme kutuna; entzun egiozue.

Andik asi eta Galilea guztian ekin zion Jainkoaren Erreinua etorri zala esaten. Eta, bitartean, gaixoak sendatzen zitun seiñale bezala, eskuak gainean ipiñita... Pekatariak onartzen zitun eta pekatuak barkatzen. Parabola edo **pi**-sail bat ere asmatu zuen Jainkoa-erreinuaren berri emateko:

Jainko-erreinua mostaza azia bezelakoa da: oso txikia eta arhola egiten da, txoriak etorri eta bertan kabiak egiten dituzte, azi txiki orretatik sortutako arbol an.

Baita ere, lurrean gizonak ereiten duen azia bezelakoa. Ereiten du eta joaten da lotara. Gero azia here kasa erneko da gizona lo dagoen bitartean...

Jainko'aren Erreinua emen lurean dago, gure artean, iñor konturatu gabe... Jesus'ekin batera, eta beraren bidez, etorri zan jainkoa'ren Erreinua lurrera.

Jesus'ek esaten digu, Jainkoa here Aita dala, eta berak bakarrik ezagutzen duela Jainkoa, Jesus ere Jainkoa dalako.

Jesus Jainkoa'ren Seme izatea, orixe da misteriorik aundiena eta sakonena. Berak esanda dakigu; baña, gure kabuz eta gure arrazoi-bidez, ezin ge.nezake egi ori lortu. Fedea bear da.

Jesus Jainkoa'ren seme dalako eta gu Jesus'en anai-arreba, gu ere Jainkoa'ren nolabaiteko seme-alaba egiten gaitu; orrela, guztiok familia aundi bat osatzen degu. Gure anai nagusi clan Jesus'ek erakutsi zigun Jainkoari GURE AITA esaten.



"SOBIET BATASUNA: ERRALDOI BATEN AGURRA"

ALDAKUNTZAK

Gizaldiz gizaldi ludi edo mundu au aldatuz doa. Aldaketa batzuk jazoten dira eta len indartsu edo nagusi zana, urte gitxi batzuk igaro ondoren, guztiz aienatuta dago; eta, alderantziz, len ezezagun lez genduana, orain jarraitzeko eredu ta arazo guztiak konponduten dauzan gauza miragarri bat lez biurtu jaku.

Gizaldi edo mende onetan be, aldakuntzak naikoa izan dira, baiña azken-urteotan ikusi doguzanak lakorik ez. Ikusi egizue, bestela iru urtetik ona zer gertatu dan ludian eta bereziki sorkaldeko errialdeetan, adibide bat ipintearren.

ASKATATUNA

Orain dirala lau edo bost urte, nor esango eban Alemania biak bananduten ebazan **Orma** ospetsu on beratua izango zala, zorotzat artua izan barik, edo-ta ormaz bestaldeko errietan, "komunismoa" pikutara joatea? Ba, egia esateko, ez iñok!

Alaz eta, guzti on ta geiago gertatu eta ikusi doguzan aldaketak arrigarriak izan dira: Polonian asi ziran askatasuna eskatzeko lenengo agerraldiak eta bertatik aide guztietara zabaldu ziran. Esaterako, Txekoslovakia'ra, I-lungria'ra, Bulgaria'ra, Rumania'ra (emen matxinada odoltsu baten bitartez), Alemania'ra (Berlingo Ormaren jauskeraz) eta jakiña, Sobiet Batasunera (emen askatasunari bidea emon jakolako).

IRAULKETA

Beraz, ille gitxitan, Kondairak erabarritze sakon bat jasan dauala esan lei.

Baiña, gaur Sobiet Batasuna zanari buruz zeozertxo idatzi gura neuke, batez be, bere nortasun berezia eta bere Laterri-Ereduagaitik.

Egin dagigun edesti labur bat: Errusiarrak eta bere inguruko erriak luzaro bizi izan ziran jauntxo batzuen menpean eta zeatz-meatz esanda, errege edo "Zar"en nagusikerien aurrean makurtuta.

1917garren urteko Urrillaren 25' ean jazoera garrantzitsu bat gertau zan, mundu osoan ospe ta entzute andia lortu ebana. Egun orretan iraultza hat sortu zan eta iraultzailleak agintea lortu eben, bertatik botaz lengo jauntxoak, Errege edo "Zar" en aldezeak eta bere taldekoak.

Agintari barriak (euren artean Lenin eta Trotsky zirala) goitik bera aldatu ehen indarrean egoan erahidea edo "sistema". Euren pentsakeran, Laterria zan jaun eta jaube eta gidari nagusia eta berari dan-dana geratuko jakon menperatuta.

Orregaz, gizakien askatasuna guztiz txokoratuta geratu zan.

Urteak joan eta urteak etorri, agintariak aldatu ziran, beste batzuk agertu (Stalin odolzale eta ankerra, esaterako) eta jauntzargoa edo "dictadura" aurrera joian, geroago ta sendoago.

Orrekin batera, "**Urrilleko Iraultzak**" eragin itzela izan eban mundu osoan zear, lurralde txiro eta bearsuetan batez be, eta errialde oneik asi ziran urreratuten erabide orretara, orretan ikusten ehelako curet) itxaropen bakarra txirotasun orretatik urten al izateko.

MUNDUA ZATI BI

Gauzak orrela, mundua banatuta agertu zan, komunismoaren aide eta aurka_egozanen artean.

Sorkaldeko errialdeak kezka eta ardura aundiz ikusten eben komunismoaren eragiña eta indarra. Eta alkartuten asi ziran. Orrelan, agertu zan O.T.A.N. (gudako erakundea), Laterri Batuak buru zirala. Orreri erantzun nairik, Sorkaldeko erriak batu ziran Barsobiako Ituna izeneko alkartean.

Era orretan, guda otsezko aldiak eldu ziran eta gudak jazo be toki askotan. Ori bai, Laterri Batuak eta Sobiet Batasunak alkar jo barik.

IZKILLUGINTZA TA GOSEA

Bitartean, zer jazoten zan Sobiet Batasunean?

Emen, baliabide guztiak erabilten ziran izkillugin-tzarako, euren almenari eutsiaz eta Laterri Batuai aurre egitearren. Baiña ori egitean, barruan arazo ugari agertuten asi ziran: Euren gintza edo industria oso zarra zan eta bere egiturak oso antziñekoak. Olan ha, ez zan arritzekoa gosea agertzea Laterri zabal eta aundi orretan.

Edozelan be, guztia estalduta geratzen zan aginte militararren aurrean. Orrek ez dau esan gura arazoa aztu edo bigunduko zanik. Ezta pentsatu be, geroago ikusiko dogun legez.

Urteak igaro eta orrela elduko gara 1985 urtera. Urte orretan gizon berezi bat agertu zan, munduari aldaketa aundia ekarriko cutsan gizona. Mijail Gorbachov zan bere izena.

ASKATASUNA BARRIRO

Onek, here Errialdea egoera txarrean ikusita, era harriak sartu gura izan ebazan, askatasuna zahalduz eta haruko egiturak eraharrituz. Orixe da gaur egunean "Perestroika" lez ezagutzen doguna. Barrikuntza arri-garria, henetan.

Erriarteko artuemonetan, ten here etsai amorratua Aran Latcrrri Batuekaz adiskidetu Aran eta hide batez, guda nuklearraren arrisku itzela uxatu be hai. Baita Bakearen Nobel Saria jaso be, berak bakearen alde egindako alegin guztiakaitik.

Bitartean, Sobiet Batasunetik zabaltzen zan askatasun giroa ustiatuz, here inguruko errialdeak here eragiñetik aldunduten joiazan. Idazki onen asikeran aitatu doguzanak dira: Polonia, Hungria, eta gaiñontzekoak.

Atzerri aldean, gauzak ondo ba'joakozan Gorbachov'eri, ezin lei esan gauza bera gertauko jakonik here errialdeko barruan. Emen be, erri batzuk banatu gura ehen Sobiet Batasunetik. Onein artean urrengok aitatu leiz: Lituania, Letonia, Estonia, gaur egun euren buruen jabe dakusguzanak, eta beste batzuk be, Azerbaiyan, Moldavia, esaterako.

GOSEAREN ARAZOA

Eta guzti orreri batu jakon gosearen arazoa. Geroago ta andiagoa zan eta ondorio lez, jendearen asarrea eta artegatasuna. Giroa naspilduz joian eta ez eban gauza onik iragarten.

Au ikusita, Mijail Gorbachov'ek eskatu eutsen Sarkaldeko Errialdeai laguntza (jangaiak, batez be) baita alkartasuna be, Perestroika eta Errialde berbera bat-bateko matxinada batetik salbatuteko.

Azkenean, orrelako egoeretan jazoten dan lez, itzak ugari eta ederrak, baiña ezelango laguntza barik, eta jazo bear zana jazo zan.

AGINTARI BARRIA

Igazko Dagonillaren 19'an eta 20'an matxinada bat izan zan agintetik Perestroika botateko. Ordu luze ta larriak igaro ziran egun bi orreitan gauzak konpondu arte. Egoera orretan, gizon bat ospetsu egin zan here kemenaz: Boris Yeltsin. Emendik aurrera, garrantzi aundia izango dau here Laterrian eta mundu osoan be.

Bere agertzeagaz batera, Gorbachov baztertuta gertatu zan eta ordutik gaur arte ezkutau edo ostenduta lez dogu.

Gauza tamalgarria benetan, berak Sobiet Batasunaren eta mundu guztiaren aide egin ebana gogoratuten badogu. Baiña mundu au olangoxea da: Orain mendi tontorrcan, eta hiar lurperatuta.

Gaur egun, Yeltsin agintean dogula, len Sobiet Batasuna zana, orain ez dogu bizirik. Orain Laterri Burujabetzadunen Alkartea (C.E.I.) da bera ordezkaturten dauana.

ORAIN NORANTZA?

Era orretan, ba, urte askotan munduan zear eragin eta almen aundia izan ebazan Errialde au joan egin jaku goizetik gabera eta here eragiña he bai. Ikusi baiño besterik ez dago, here inguruko errialdeen jokabidea.

Alaz eta, itaun asko geratzen dira aidean. Esaterako, Boris Yeltsin gizon egokia ete dan Errusiako lendakaria izateko edo-ta oraintsu sortutako Alkarte barri orrek nundik joko ete dauan emendik au rrreruntz.

Egunak aurrera igaro-ala, jakingo doguz erantzunak.


Bitartean, erraldoia beti erraldoi eta banatuta egon arren, txarto egingo genduke aztuta eukitea.

Bilbao. 1992ngo Martiaren 9an.

MALAX-ETXEBARRIA'TAR JON -KALAMUA-

IKASLE BARRIENTZAT

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10



ZURE IZTEGIA BARRIZ IKASI EIZU GURUTZ-ITZAK EGITEN

ZEARKA


- 1.- Perro, beso (voz infantil).
- 2.- Vocal, vocal, es. serio.
- 3.- Campa, pues.
- 4.- Grueso, muchacha.
- 5.- Los amigos.
- 6.- Consonante, diez, vocal.
- 7.- Instante, consonants, consonantes repetidas, consonante.
- 8.- Vocal, i, donde? (al revēs) sucio.
- 9.- Debajo de, (al revēs) la medula.

ZUTUNIK

- 1.- Tejado, vocal.
- 2.- Consonante, (al revēs) va, soy.
- 3.- Grande, vocal, consonante.
- 4.- Consonante, reflejo (repetido), yo.
- 5.- Verano. el gato.
- 6.- A un lugar, (al revēs) lengua, consonantes repetidas.
- 7.- Hierba.
- 8.- El caserfo.
- 9.- Debajo de (sufijo), (al revēs) los, las, bueno.
- 10.- En (sufijo), aguijon.

π	N	V		N	V	I	d	Z	V
1	O	i		N	π	N		V	
I		d	d		1		3	N	
π		d	V	IN	V				
N	V	3	O	I	N	S	I	O	
V	N	S	3	N		I	O	O	
		V	8		V	O	N	V	
N	3	8		V	O	π			
V	d		d	π	N	V	X		

ZORTZI ALDAKETAK



- o2eia, 1r,g Jamul `ur.amo r.uu0 -'8
- eynt:p ezllr.q Oh!l. .yr.tmm1, -L
- ycatoq(q uaar,a~a~ag q
- o2t;ta,i try ramu `ur.al l ilnun~aV S
- eIyzR.In `ur.i~aln~g 'l
- 'tr.q r,a.zeui •uro.uoZ -~
- r.ztl>~ uaat;myr.x L -'Z
- ar,y (drz `ur.aaan-I l

dNI3d'IVZV

KARMELE

KULTUR ETXEA

ONDARROA

IDAZ SARIKETAK

Oiturari jarraituz, Ondarroako Kultur Etxeak sail ez-hardiñetako idaz leiaketak eratzten dauz 1992 urte onetarako.

Edozeiñek parte artu leike.

BALDINTZAK

Gaiak, al dala Ondarroari ikututen dautsenak izanarren, inguruko heste edozein erritan kokatu leitekez.

Lan guztiak, izenordez bialduko dira, eta oi dan lez, heste kartazal haten egillearen izen-abizen, zuzenbide eta abar.

Lanak makiñaz idatziak izango dira, folio orrietan, lerro artean tarte hi itxiaz. Lan hakoitzeko iru kopia.

Lanak zuzenhide onetara bialdu bear dira: Kultur Etxea, Artabide 13, Ondarroa (Idaz sariketa)

Kultur Etxeak aukeratuko ditu bertako Epai-maikoak. Oneik euren eskubideko eukiko dabe sariak aldatzen, baiña alegin egiñaz iragarritako dirutzak hanatzen.

LANAK BIALTZEKO SPEAK

Barre to Irri eta Gatz lodia (txistek), Uz-tailla'ren 15 arte bialdu leitekez.

"Ondarroa aizetzen eta aztertzen" lanak. Irailla'ren 30 arte.

JAKINGARRIAK

Saritu barik gertatu leikezan lanak, egilleak, epaia emon eta illabete ondoren eskatu ezik, Kultur Etxean geratuko dira.

Saritutako lanak ONDARROA aldizkarian nai beste agerpen herezien baten argitaratu leikez Kultur Etxeak.

SAILLAK

BARRE TA IRRI IV

Kontakizun alai, umoretsuak. Laburrak. Iciazle bakoitzak bost foliolik gora bialdu bear ko dauz, folio bakoitzean kontakizun bat haiño geiago sartu leikezaka.

Sarlak:	35.000 pta
	25.000 pta
	15.000 pta
	12.000 pta
	10.000 pta

Gatz lodia (Txistek)

Izkirimiri erraz, bizi, barre eragilleak. Orrialde bakoitzean lau txiste.

Sariak:	5.000 ptako amar sari, bakoitzak orrialde bi gitxienez bialduta
	3.000 ptako amar sari, bakoitzak orrialde bakarra bialduta


ONDARROA AIZETZEN ETA AZTERTZEN

Sail onetako lanak azterlan sakonagoentzako argibide antzeko izango dira. Bakoitzak, gitxienez 20 orrialde.

Gaiak: Ondarroa ta gizonak	100.000 pta
Arrain gertapen ta merkataritza	100.000 pta

Gai onetan gaur erdi galduta dagon beste lan-gintzaren bateri buruz ere idatzi leike.

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*

&A

Bilbao Bizkaia Kutxa